



### Lana / La obra

Ateraldi jai giroko batekin hasten da kontakizuna, bost neska-mutiko eramango dituen ustekabeko abentura bat bizitzera. Abentura horretan proban jarriko dute adiskidetasuna, imaginazioa eta ez-ohiko egoeren aurrean erantzuteko modua. Dena gertatzen da Donostiako Aste Nagusian, Kontxako hondartza eta Santa Klara uhartearen artean: Urkok, Ainhoak, Malenek, Denisek eta Felixek Piraten abordaiaren jaia bizi nahi dute hurbiletik. Hain hurbiletik, badiako gabarroiaren gainean bukatu baitute uhartera bidean. Uharte bat da Santa Klara, dena misterioz, eta altxorrez betea, eta gure neska-mutikoei babestu behar dutena.

Hasieran, bihurrikeria xalo bat zena beldurraren aurreko desafio bat bihurtzen da: desanimoaaren kontra, elkartasunaren alde. Uharteko talaiatik begira, gauza bat ikasi dute, behintzat, marinel onak direla maniobrak egiten dakitenak, timoi kolpeak ematen dakitenak itsaso haserrearen aurrean, eta beharrezkoa bada norabidea aldatzen dakitenak. Haien dira marinel onak.

### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Kontxako haur galduak**  
Egilea / Autor: **Seve Calleja**  
Saila / Colección: Perzebal, 33  
ISBN / EAN: 978-84-9109-164-6  
Salneurria / Precio: 10 € (BEZ barne – IVA incluído)  
Adin gomendatua / Edad recomendada: 12-16 urte  
Orri kopurua / Nº páginas: 88  
Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm



### Egilea / El autor

**Seve Calleja** Zamoran jaio bazen ere, Bilbon bizi izan da bizitza guztia, eta bertako institutu batean aritu da literaturako irakasle. Hasieran, poesia eta helduentzako ipuinak idazten hasi zen. *Zurgai* poesia taldean parte hartu zuen, eta hainbat sari jaso ditu narraziogintzan: *Ignacio Aldecoa* eta *Gabriel Aresti*, ipuinena, eta *Pio Baroja* nobela sariaren akzesit bat.

Baina bere jardun nagusia haur eta gazte literaturan egin du, bai idazle moduan baita irakurle, ikerle eta kritiko moduan ere. Artikulu, hitzaldi eta estudio asko idatzi ditu gai horren gainean. Arlo horretan idatzitako liburuekin ere sari ugari jaso ditu, bestekak beste: *Lizardi saria* 1985ean eta *Leer es Vivir* 1997an.